

Asisko gutuna

2009ko abendua. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

barnerantz, umiltasuna

14. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sarean dauden pertsonak bilaketa espiritualaren bide pertsonala partekatzen dute, norbera dagoen lekuan dagoela eta dabilenean dabilela. Bide honetan denok sartzen dira: fede kristaua benetan zeozer eskaintzen dieten ezagutzera irekita dauden sinesgabeak hasita, sentsibilitate frantziskotarra duten

sinesdunak arte. Bilaketa pertsonala, beraz, Asis Sarearen ardatzan jartzen da. Jesus, Jainkoa gure bila grinatsu dabilen seinalea da. Beste urte batez ere bere jaiotza ospatzea bilaketan jarraitzeko eta Jainkoari gu aurkitzen uzteko bultzada berria izan dakigula opa dizuegu: Eguberri on!

Gogoetarako gaia

Ditugun dohainekin zer egin

Behin eta berriro geure egiten dugu dena, jabetu egiten gara bizitzan hartu ditugun dohainez, eskubidez dagozkigulakoan, dena gurea balitz bezala. Jabetu egiten gara egiten dugunaz, lortzen dugunaz, horrek besteak baino gehiago izateko baimena emango baligu bezala. Jainkoaz ere jabetu egiten gara.

Eta dena geure egiteak zera dakarkigu: gauzarik onenak behatz artetik ihes joatea. Guztiaz jabetzeak estutu egiten gaitu, geure baitan bildu; zer garen, zer balio dugun, zer daukagun erakutsiz joan behar dugu. Geure burua defendituz bizi gara, harrokeria eta auto-estima zaurituaren artean.

Nola libra gaitzke dena geure egitetik? Dena eskertuz. Geure dohain handiak, daukagun balio handiak, geure gaitasunik onenak, are geure mugatasunak, hartutako opari ditugu. Dugun guztia erregali gisa bizitzeak, bizitzak eman digun guztia

bihotzetik balioztatzeak, askatu egiten gaitu kontrolatzeak berekin duen larritik, apaltasunera hurbiltzen gaitu. Esker onetik soilik har diezaiokegu neurria hoberen dugunari.

Begirada Jainkoarengana jaso eta harengana urreratzen bagara, Jainkoak oparitan eman diguna ikusten dugu, eta has gaitzke eskerrak ematen eta goresten. Eman egin zaigu dena. Geure dohainak Jainkoak emandakotzat hartu eta bizitzeak libre egiten gaitu. Izan ere dena geure esku dago, ahal duguna egiten dugun neurrian; eta ezer geure ez dugulako, utz dezakegu dena Jainkoaren eskuetan. Dena hartua balitz bezala biziz, libratu egiten gara geure harrokeriatik; eta geure apaltasunetik esker ona konfiantza bihurtzen da. Jainkoa gure alde dagoela baldin badakigu, dena haren esku utziz, askatasunetik eta konfiantzatik, onar dezakegu Jainkoak gutako bakoitzarentzat aurreikusi duen egitekoa.

Ebanjelioko pasarteak: Jn 1, 35-39

Jainkoaren erregetzarekin, atzerrira irten behar zuen gizonarekin bezala gertatzen da. Bere morroiei dei egin eta ondasunak utzi zizkien: bati bost talentu, beste bati bi eta besteari bat, bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Gero, alde egin zuen. Bost talentu hartu zituenak inbertitu egin zituen berehala eta beste bost irabazi. Orobat bi talentu hartu zituenak: inbertitu eta beste bi irabazi zituen. Bat bakarria hartu zuenak, aldiz, lurrean zuloa egin eta bertan gorde zuen nagusiaren dirua. «Handik denbora askora, etorri zen nagusia eta morroiei kontuak hartzen hasi zitzairen. Aurreratu zen bost talentu hartu zituen eta beste bost aurkeztu zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; hona beste bost nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan zara, askoren buru ipiniko

zaitut; sartu zeure jaunaren festa ospatzera”. Aurreratu zen, gero, bi talentuduna eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; hona beste bi nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan zara, askoren buru ipiniko zaitut; sartu zeure jaunaren festa ospatzera”. Aurreratu zen talentu bakarria hartu zuena eta esan zion: “Banekien gizon zorrotza zarena, erein ez duzun tokian hartzen eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna; beldur nintzen, eta zure talentua lurrean ezkutatu nuen. Hona zeure dirua!” Nagusiak erantzun zion: “Ai morroi gaizto eta alferra! Bazenekien erein ez dudan tokian hartzen dudana eta zabaldu ez dudan tokian biltzen. Beraz, bankuan jarri behar zenuen nire dirua, itzultzean bere korrituekin jaso nezan.

Espiritualtasun frantziskotarra

Zenbat kostatzen zaigun onartzea bizitzan geure egiazko lekua, Jainkoaren eta besteen aurrean! Anaia Frantziskok bizi eta erakutsi izan zuenaren aldean, guk sarritan, bi tentazio sentitzen ditugu eta beraietan erortzen gara: Jainkoaren dohainak ukatzeko tentazioa, edota dohain horiek geure bezala hartzekoa.

Anaia Frantziskok eskaini zigun jarrera zuzena: *“eskertu hitzazue bere dohainak, abestu bere kreazioa; sorkari guztiok, gora ezazue nire Jauna”*. Kontua ez da, beraz, dohainak ukatzea eta zapaltzea, aitortzea baizik eta eskertzea: *“eskertu itzazue bere dohainak”*. Kontua da Jaunak ematen dizkigun dohainak onartzea eta berari apaltasunez itzultzea, dohain horiek maitasunez eta maitasunagatik ugarituta: *“abestu bere kreazioa”*.

Goretsi eta bedeinkatu nire Jauna, eman eskerrak eta apaltasun haundiz zerbitzatu!

Egun bakoitzeko dohaina

Irakats niri, Jauna, zure dohaina bizitzen egunean egun.
Zure planak, ez besterik, egunean egun.
Nire hurrekoaren aurpegia berri izan dakidala, egunean egun.
Lilura ahal nadila, Aita, zure maitasunaz, egunean egun.
Emadazu, Jauna, bihotz otzana sufrimenduan, egunean egun,
borrokan indartsua, egunean egun,

otoitzean gartsua, egunean egun.
Egunean egun, Aita, jar dezadala nire konfiantza zuregan,
biharkoa zure eskuetan utziz, kezkarik gabe,
presarik gabe.
Egunean egun estrena dezadala zure bakea, zuregandik osasuna nahiz gaixotasuna hartuz,
arrakasta nahiz porrota, aurrerapena nahiz atzerapena.
Irakats niri, Jauna,
Egunean eguneko dohaina bizitzen.

Gutuneko azken hitzak

Pertsona bakoitzak ditu bere altxor ezkutua, eta beharrezko da horiek argitara ateratzea, altxordunak zorion izan dezan eta Gizadiak aberastasun.

2010eko urtarrileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urtarrileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 2,16-21	8 Lk 5,12-16	15 Mk 2, 1-12	22 Mk 3, 13-19	29 Mk 4,26-34
2 Jn 1,19-28	9 Jn 3,22-30	16 Mk 2, 13-17	23 Mk 3, 20-21	30 Mk 4,35-41
3 Mt 2, 1-12	10 Lk 3, 15-16. 21-22	17 Jn 2, 1-11	24 Lk 1, 1-4; 4, 14-21	31 Lk 4, 21-30
4 Mt 4,12-17.23-25	11 Mk 1, 14-20	18 Mk 2, 18-22	25 Mk 16,15-18	
5 Mk 6,34-44	12 Mk 1, 21-28	19 Mk 2, 23-28	26 Lk 10,1-9	
6 Mk 6,45-52	13 Mk 1, 29-39	20 Mk 3, 1-6	27 Mk 4,1-20	
7 Lk 4,14-22	14 Mk 1, 40-45	21 Mk 3, 7-12	28 Mk 4,21-25	

Oharrak:

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Irekitasun hau sarean parte hartzen dugun bakoitzari egitea dagokigu. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko Gutun hau jasotzera edo hileroko azken ostegunetan 19.30ean, ohiko lekuetan, ospatzen dugun otoitzaldian parte hartzera nor gonbida dezakegun pentsatuz.

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2009ko abendua. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua,

barnerantz: umiltasuna

14. zenbakia

Geure bizitzako gertaera eta harremanetan apaltasuna oinarrizko jarreratzat hartzea dugu hil honetako gaia. Pertsonaren egia osoaz kontziente eginez joateak (ez soilik norberaren mugatasun eta zailtasunez, baizik baita bizitzaren alderik onena, norbere izatea, osatzen duen guztiaz ere) eta alde on hori egunero bizitzeak, lagundu egiten du bizitzaren nondik norakoa aurkitzeko eta gauzatzeko bidea egiten.

Ditugun dohainekin zer egin

Jarri lasai une batean, egin isiltasuna zeure baitan eta galdetu zeure buruari: zeintzuk dira bereizten nauten bertuteak, gaitasunak, baloreak, jarrerak? Ezagutu eta onar itzazu eta ezagutu eta onar ezazu zeure burua haietan: zeu zarenaren parte dira. Nola sentitzen zara lan onen ondoren?

Inoiz sortu da esker ona zugar, badauzkazula ikusten duzun bertute, gaitasun eta baloreengatik? Norengana edo nora zaramatza esker on horrek?

Ezagun batek honela esan zidan behin: *“Ez dakit nondik sortzen zaidan hainbeste maitasun neure alabarekiko”*. Izan duzu inoiz horrelako sentsaziorik? Zeukan alderik onena bera baino haratagotik etorria bezala, erregali bezala, sentitzen zuen ... Zer iradokitzen dizu horrek?

Gogoetak honetaz hitz egiten du: zeure dohainak zeure eginez bizitzearen eta beroriek zeure egin gabe, esker onez, bizitzearen arteko aldeaz. Izan duzu diferentzia horren esperientziarik? Une honetan sentitzen duzu zeure barruan gonbiterik, zeure ezaugarri positiboak beste era batera bizitzeari buruz?

Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi eta besteari bat

Aurreko pasartean, zeure talentuak hausnartzera egin zaizu gonbitea: zein izan da zeure lehen sentimendua gonbite horren aurrean? Erraz egin ahal izan duzu? Zergatik?

Maiz neketsu egiten zaigu geure talentuak ontzat hartzea, geure inkontzientearen *lurpean sartuak* daudelako. Baina hor daude eta honetarako eman zaizkigu: geure eta besteen onerako fruitu eman dezaten.

Zeure zein dohain daukazu lurpean? Horietatik zein ez duzu nahi, edo ezin duzu, ontzat hartu? Hori lotsagatik gertatzen zaizu, apaltasun faltsuagatik? Edo agian *lurretik altxatua* bizitzera eta konpromiso gehiago hartzera eramango zintuzkeelako?

Gogora ezazu: Jainkoak berak nahi duela, lehenik eta behin, duzun onenarekin zeuk topo egitea, eta *bakoitzari bere trebetasunaren arabera* ... soilik ematen diola.

Ireki konfiantzaz zeure barrena Jainkoari, eskertu hari zeuregan ezagutzen duzuna, eta eska iezaiozu gida zaitzala zeugan jarri dituen aberastasunak geroz gehiago bizi ahal izaten.

“Eskertu Haren dohainak”

Frantzisko ere lekuko da, hil honetan darabilgun gaian.

Zer iradokitzen dizu bere testu honek: *“eskertu haren dohainak, kanta haren kreazioa, goretzi ene Jauna, sorkari guztiok”*?

Frankotan borrokan gabiltza geure dohainak onartzearen, eta geure buruaz harrotuta eta pagatuta gabiltzala pentsatzearen artean. Bizi duzu edo bizi izan duzu dilema hori? Konturatzen zara berori positiboki konpontzearen inportantziaz?

Aurreko testuak lagun diezaguke gai hau berriro bere tokian jartzen: geure dohainak emanak ditugu.

Utzi, hartu duzun guztiagatik miresmena eta hainbat dohainengatik esker ona, zeure bihotzean sortzen.

Egunean eguneko dohaina

Egunean egunekoan jartzen da geure bizitza jokoan. *Egunean egunekoak* ematen digu egokiera eman zaizkigun dohainak ezagutzeko, eguneratzeko eta gizon-emakumeen zerbitzuan jartzeko.

Askotan gauza handiak egitea amesten dugu eta ahaztu egiten zaigu, garena eta daukaguna jokoan jartzea gure eguneroko harremanetan, eguneroko konpromisoetan eta egitekoetan. Gertatzen zaizu horrelakorik?

Azter ezazu zeure burua eguneroko bizitzan, eta zoaz zeugandik hainbat modutara sortzen den bizitza guztia agerian jarri. Zoaz sortzen zaizunari izena ematen. Eta berori idazteak lagundu egingo dizu kontzienteago izaten eta sakontasun gehiagoz bizitzen.

Eska Jainkoari, *irakats diezazula egunean eguneko bizitzen, egunean eguneko bere planak, besterik gabe.*